

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mahai-ingurua Bergaran 2

*Bergara,
Gipuzkoa*

Aurkibidea



Biografia



Bergarako Goiauzo auzoko [Donato Ibarguren](#) (1920), Basalgo auzoko [Bittor Aperribai](#) (1923), San Lorentzoko Markos Labaien (1934) eta Oñatiko Zubillaga auzotik aspaldi Bergarara joandako Julian Aiastui (1923) elkartu ziren mahai inguru honetan, Julianek 88 urte betetzen zituen egunean bertan. Gaztetako erromerietan kaletar eta baserritarren arteko 'kategoria' ezberdintasunak; Toki Alaiko erromeriak (gerra aurrekoak eta ostekoak); Oñatin Araotz auzoko jaietan bertako mutilak nola agurtzen zituzten harrika beste auzoetakoek, eta nola ikusten ziren Intxortako bombardaketak Zubillagatik; gaixotasun eta erredurentzako erremedioak; konjuru, su eta ur bedeinkatuak; norbait hiltzen zenean, hildakoen senideekiko elizaren gehiegikeriak; Ameriketako egondako bergarar askoren istorioak, eta beste mila gaiez jardun ziren giro alaiaren gure tertulianoak. Ezkerretik eskuinera: [Donato](#), Markos, Julian eta [Bittor](#).

Zintak

BER-310

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-01-28
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

BER-311

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-01-28

- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Julianen gaztetako ibilerak

- **Erref:** BER-310/002
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:00:08. **Bukatu:** 00:02:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Julianek gaztetan nora joaten ziren azaltzen du: Araotzera, Marulandara... bizikletan ibiltzen ziren. Marulandako neska-laguna izan zuen Julianek; moja joan omen zen. Hika.

2. Erromeriaz erromeria, neskatan

- **Erref:** BER-310/004
- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:09:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Julianen neska-laguna moja zergatik joan ote zen, apaizak engainatuta edo. Asko joaten ziren moja. Erromeriaz erromeria ibiltzen zen Julian, bizikletan (Eder markakoa). Marulandaraino ere bai, sasoia zuten eta. Ibilaldi handiak egiten zituzten. Azaldittako neska laguntze baten anekdota kontatzen du Julianek. Hika.

3. Baserritarrak, neskatan traketsago

- **Erref:** BER-310/006
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:09:32. **Bukatu:** 00:12:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Baserritarrak ez ziren urruti joaten erromerietara: Elgetara, Osintxura... Bizikletarik ez zuen. Neskek ez zuten baserritarrik nahi; maiorazgoa izanez gero, tira, baina bestela... bigarren mailan zeuden. Laztan bat emateko denbora asko pasatu behar zen.

4. 18 urte arte auzoan bueltaka

- **Erref:** BER-310/007
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:12:41. **Bukatu:** 00:14:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Markos 13-14 urterarte ez zen kalera joaten, auzoan ibiltzen zen jolasean. 18 urterekin hasi zen erromerietara joaten. 19 urterekin hasi zen neska-lagunarekin. Toki batzuetan debekatuta zegoen dantza lotua.

5. Baserritarrak Toki-Alaira dantzara

- **Erref:** BER-310/008
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:14:08. **Bukatu:** 00:16:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Baserritarrak eta kaletarrak ez ziren beti elkarrekin ibiltzen. Toki-Alaira joaten ziren baserritarrak; bost "señorita" zeuden, kalera joaten zirenak dantzara. Haietako bat ezkondu zen.

6. Toki-Alaiko erromeriak, gerra aurretik ere bai

- **Erref:** BER-310/010
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:17:35. **Bukatu:** 00:20:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Toki-Alaiko etxea noiz egin zuten, gerra aurrean. Donatok gogoan du 14-15 urterekin garia ebakitzen ibili eta nola joan zen hara erromeriara, eta handik bidali nahi zutela, "umea" zelako.

7. Kanpoko mutilei harrika, Araotzen

- **Erref:** BER-310/013
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:24:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Julianek kontatzen du Araotzera joan, erromeriara, eta neskak etxera lagundu ostean, bertako mutilek harrika egin zietela. Nondik joaten ziren, oinez, Arantzazurako bidean gora.

8. Julian, 51 urtean fabrikan lanean

- **Erref:** BER-310/015
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:26:15. **Bukatu:** 00:29:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

14 urterekin Altuna lantegian hasi zen lanean Julian. Gero zerrajeran 11 urte, eta ondoren Ulman 22, Enaran. Bere anaia izan zen sortzaileetako bat. Morroi ere egon zen bi urtez Oñatin, Torretxebarrin. Egurra txikitzen ere ibiltzen zen, okindegietan. Denera 51 urte lanean. Hika.

9. Esne "bedeinkatua" saltzen, Oñatin

- **Erref:** BER-310/017
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:31:01. **Bukatu:** 00:32:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Julian 12 urterekin joan zen morroi, Oñatiko Torretxebarri baserrira. Esnea saltzen zuen, bedeinkatuta (ura botata).

10. Gerra sasoian, Julian Oñatin zegoen

- **Erref:** BER-310/018
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:32:49. **Bukatu:** 00:35:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Gerra sasoian, nazionalak Oñatira sartu zirenean, Julian han zegoen, esnea saltzera joanda. Tiroketa izan zen, eta non ezkutatu zen, txalet batean. Esnea partitzen jarraitu zuen, hala ere. Oñati hutsik zegoen.

11. Intxortako bonbardaketa ikustera

- **Erref:** BER-310/020
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:36:15. **Bukatu:** 00:37:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Juliani-eta Altuna lantegian jai eman zieten, Intxorta bonbardatu zutenean. Ikustera joan ziren, pinudi batera.</p>

12. Julianen ibilerak Araotzen

- **Erref:** BER-310/023
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:39:35. **Bukatu:** 00:41:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Oñatira prozesiora joan beharrean, Araotzera joaten zen Julian, hamarretakoa Mikeletenean eginda. Dotore joaten zen jendea prozesiora. Garizuman neskekin jolasten zuten. Koruetara ere joaten zen Julian.

13. Ukendua etxean izaten zuten

- **Erref:** BER-310/026
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:43:10. **Bukatu:** 00:46:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Donatok beti ezagutu du etxean, edozein minetarako balio zuen ukendua. Kotzabalgoak egiten zuen, eta katilu batean ekartzen zuten: 'kotzal-ura' deitzen zioten. Erre-trapuak ere bazituzten. Ukendua nola egiten zuten azaltzen du Markosek.

14. Zaintiratuentzat eta erretuentzat erremedioak

- **Erref:** BER-310/029
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:48:32. **Bukatu:** 00:52:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Bittorren amandreak zaintiratuentzat enplastua egiten zuen, zan-belarrekin eta oilo-gantzarekin. Kredoa atzekoz aurrera errezatzen zuen. Erretuarentzat zer egiten duten dio Julianek, ukendua. Goiko estazioan hartzen dute belarra.

15. Haginetako minarentzat eta flemoientzat erremedioak

- **Erref:** BER-310/031
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:52:32. **Bukatu:** 00:55:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Markosek sarri izaten zuen hagineko mina 17-18 urterekin. Erremedioak: alkohola, tabakoa... baina ez zuten funtzionatzen. Markosi flemoia zela kendu zioten, goraizekin zuloa eginda.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com